

NEGUKO KATALOGOA 2022



AURKIBIDEA

KUKU! EMOZIO BILDUMA (+2)	2-5
KIMU BILDUMA (+5)	6-9
ARGITXO	10-13
OLENTZERO	14
MUSIKA	15
+ 0 URTE	16-17
+ 3 URTE	18-21
+ 6 URTE	22-25
+ 8 URTE	26-29
+ 10 URTE	30-31
ZIENTZIALARIAK	32-33
XABIROI KOMIKIAK	34-36

KUKU!

EMOZIO BILDUMA (+2)

Beldurra, haserrea, nazka, poza, sorpresa eta tristura, oinarritzko sei emozioak ezagutzeko, kudeatzeko eta besteenak hobeto ezagutzeko bilduma da Kuku!



SORPRESA!

Manexek ezusteko berri bat jasoko du, eta horrek hainbat sorpresa eta sentsazio berri ekarriko dizkio.

14,95€



HASERREA

Mireiak inurriak gutxietsi eta bortizki zanpatu ditu. Baina inurriek ere, txikiak eta ia ikusezinak izanagatik, sufritzen dute, eta haserretzen dira.

14,95€

EUSKADI
SARIA
2022



IRRIMOLA

Poza biribila da, barruan daramagun zurrumbiloa. Leunki ateratzen da maiz. Beste batzuetan, ordea, xirimolaka kanporatzen dugu, irri eta algaraka.

19,50€



NAZKATASUNA

Zer da nazka? Noiz sentitzen dugu? Gauza berdinek ematen al digute nazka? Denok sentitzen al dugu berdin?

14,95€



PUTZ EGIN ETA IKUSIKO DUZU

"Beldurra zure barnean dago, birikak eta sabelaren artean", esaten zidan amonak. "Hortik atera behar duzu nolakoa den ikusi ahal izateko".

14,95€



TRISTURA

Nahigabeak har dezake edozeinen gogoa oharkabeen. Baina badago norbait hemen lagunari bizipozaz eta alaitasunaz hitz egiteko.

14,95€

Oinarrizko emozioak ezagutzeko bina ilustrazio topatuko dituzu horma-irudi bakoitzean. Elkarrizketarako, egoera eta gertakizunak partekatzeko, baita emozioak eta sentimenduak bizitzeko eta adierazteko ere erabilgarriak dira.

84x21 cm-ko 2 horma-irudi. 14,95€ bakoitzak.



**FIRIN-FARAN
KALEJIRAN**
POZA



**OINAK LURREAN
PIL-PILEAN**
TRISTURA



**TIKILI-TOKOLO
ZIRKUAN**
BELDURRA



**PLASTA-PLASTA,
PARRASTA!**
NAZKA



**BAT-BATEAN,
ZAST!**
SORPRESA



**TXISPUN
BURRUN!**
HASERREA



EMOZIO-TXARTELAK

Bi alde dituzte emozio txartelek. Batean, emozioak identifikatzen laguntzen duten aurpegi-adierazpenak agertzen dira. Bestean, berriz, istorioak sortzeko aukera ematen duten egoera irekiak. Bakarka nahiz taldean jolasteko aukera eskaintzen du.

12x12 cm-ko 18 txartel 2 aldeetatik

16,95€



EMOZIOEN MEMORIA-JOKOA

Oinarrizko 6 emozioen aurpegi adierazleak ardatz hartuta, eta horien 3 aldaera eta intentsitate-maila bereiziz, forma biribila duen memoria-jokoa (18 fitxa-pare).

16,95€



EMOZIOEN DOMINO-JOKOA

Oinarrizko 6 emozioen aurpegi adierazleak ardatz hartuta, erlauntza forma duen domino-jokoa (28 fitxa).

16,95€

KUKU!



HIZTEGI JOLASTIA +5

Alfabetoko letra bakoitzak du bere poema eta marrazkia. Jolaserako hiztegia da, eta jolas eginez irakurtzen trebatzeko ere bai.

11,05€



BADAUZKAT NIRE ZULOTXOAN... +5

Negua pasatzeko janaria biltzen hasi da urtxintxa. Istorioan zehar etengabe presente egonda ere, irakurlea sorpresaz hartuko duen beste protagonista bat bada...

13,15€



NIRE GORPUTZEAN BIZI NAIZ +5

Poema, asmakizun eta igarkizun sorta da. Liburuak jolas egiteko gonbita luzatzen die haurrei.

8,95€



GALDU DENA, AZALDU DADILA! +5

Hirian desagertu dira Olaiaren ama, Ekhiren aita, Lukaren amonak eta Miaren osaba. A zer despistatu-kuadrilla! Eta orain zer? Nondik hasi bila?

13,15€



LOINATZEN LOA +5

Ondozik esnatu denez, Loinatz etxean gelditu da, ohean goxo-goxo. Etxeko tramankuluek, ordea, hankaz gora jarriko dute Loinatzen loa.

13,15€



FAMILIA XELEBREA +5

Familia guztiak dira xelebreak. Baina xelebreetan xelebreena Erramun Babarrun, Mariaje Potaje, Serafin Mokofin eta Arantxa Balantxarena.

8,95€

Konta-kontari karta jokoekin haurra jolasten ari den bitartean, kopuruen kontaketa eta grafiaren arteko loturak egin ditzake. Gainera, ohiko karta-sortekin egin daitezkeen jolasak ere egin daitezke.



KONTA-KONTARI 1

13,00€



KONTA-KONTARI 2

13,00€

KIMU

KIMU BILDUMA (+6)



LETREN JOLASLEKUAN +6

Hodeiri letrak kostatu egiten zaizkio; ez dira bere lagunak. Ametsek letren jolaslekura eramango du eta, jolasaren bidez, letrekin adiskidetzen lagunduko dio.

8,95€



HANKA, MOKO ETA BUZTAN. ANIMALIEKIN DANTZAN +6

Asmazan, asmazak... Zer ote dago liburu honen baitan? Animalia bitxi ugari, hanka, moko eta buztan...

11,05€



TIK, BAKARRIK. TAK, IKARAK +6

Bat-batean, amona gaixotu egin dela eta, etxean bakarrik geratu dira bi anai-arreba. Eta, denborak aurrera egin ahala, beldurra areagotu egingo zaie.


8,95€



ITSAS HAIZEA DABIL +6

Arraitarrak senide askoko familia dira: abeslariak, akrobatak, gozogileak, jostunak... denetik dago etxean. A zer zalaparta familia horretakoa!

11,05€



ITZAL ITZELA +6

Paule hondartzan dagoelarik, hondar azpian zerbait mugitzen sumatu duen arte. Geldi geratu da, harrituta, zer egin ez dakiela. Amonaren esaeraz gogoratu da orduan: beldurrari aurre.

13,15€



ZARATA DO MAIORREAN +6

Duelu batean lehertzen den piano eta biolinerako musika entsegu bat da abiapuntua, protagonistak bi haur musikari direlarik.

13,15€



JAKELINEN EGUNEROKOA +6

Jakelin oso irudimentsua da. Egun batean, ustekabeko aurkikuntza egingo du: bere familia ez da bere benetako familia, beste planeta batetik dator. Sekulakoak egingo ditu bere jatorrizko etxera itzultzeko.

11,05€



EUSKAL HERRIETAKO IPUIN HARRIGARRIAK +6

Honelako ipuinek adierazten diote haurrari bizitzan bakarrik moldatzeko trebeziak landu behar dituela; egunen batean ez du gurasorik izango, edo gurasoek ezin izango diote lagundu...

12,00€



2-7

ARGITXO PUZZLEAK

Argitxoren irudi ederrak dituzten puzzleak. Puzzle zati kopuru desberdina dute (6,9,12,16), haurren adinari hobeto egokitzeko. Puzzle bakoitzak 16x16 cm.

21,00€



3-7

ARGITXOREN ALFABETOA

Alfabetoko letrak ezagutzeko, bakoitzaren grafia desberdintzeko, eta dagokien irudiarekin erlazionatzeko jolasa. Jolasteko era ugari, barruan dagoen argibide-orrian.

25,00€



3-7

ARGITXO PAREAK ETA DOMINOA

Kartoizko pare-jokoa eta dominoa. Albo bietatik erabilgarria: aurkakoen dominoa eta kantitateena. Pare-jokoa: 26 fitxa (5x5 cm). Dominoa: 28 fitxa (6x12 cm).

25,00€



+5

ARGITXO EUSKAL HERRIAN

Argitxo ere ezkutatu egin da irudian, Euskal Herriko hainbat tokitan. Aurkitu ezazu!
40x28 cm-ko puzzlea; 50 zati.

20,00€



4-7

ARGITXO HITZAK IRAKURTZEN

Lupa magikoaren laguntzarekin letrak ezagutzen eta hitzak osatzen ikasteko jolasa.

21,00€



4-8

ARGITXOREN LEHEN HITZAK

Irakurketa-idazketa prozesuaren lehen pausoak ematen laguntzeko jolasa. 22 txartel, taula (35x35 cm) eta 100 plastikozko letra-fitxa.

27,00€



+6

**URKATUA
ARGITXOREKIN JOLASEAN**

Urkatuan jolasteko 2 euskarri, 72 letrako 2 bilduma eta euskara-ingelesa hiztegia. Euskaraz nahiz ingelesez jolas daiteke.

26,00€



+6

**ARGITXO DINOSAUROEN
MUNDUAN**

Munduko mapa eta dinosauroak ezagutzeko puzzlea. 36 dinosauroen gida eta Argitxoren irudia, barruan dagoen horma-irudian.

22,00€



4-8

**ARGITXO ETA
GURE GORPUTZA**

Gorputz-atalak, hezurrak eta organoak jolastuz ezagutzeko. 30 zatiko 2 puzzle (albo bietatik); 45x58cm puzzle bakoitza.

26,00€



ARGITXO PANPINA

Argitxoren panpina biguna.
Lotara eramateko aproposa.
Jolasean ibiltzeko lagun
maitagarria.

27,00€



ARGITXO POLTSA

Neurria: 24x28 cm

Argitxo protagonista duen poltsa;
janariak, arropak, eskola-materiala
edo beste edozer eramateko.
Motxila bezala eraman daiteke.

2,00€



3-7

ARGITXO ETA OLENTZEROREN OPARIA

Argitxok, ezustean,
Olentzeroren bisita izango du.
Zer gertatuko ote da?

4,00€



3-7

ARGITXO ETA ARLOTEA

Argitxok lagun berri bat du,
ipuinak kontaktzen dituen
arlotea. Zer jazoko ote?

4,00€



3-7

ARGITXO ETA IPOTX GALTZABERDEA

Argitxok Patrizio Mackakorro
galtzaberde irlandarra aurkitu du
hondartzan, botila baten barruan.

4,00€



NIRE AMA OLENTZERO DA

Beñatek arreatxo bat eskatu ohi dio Olentzerori urtero, baina, horren ordez, beste opari bat ekartzen dio beti: tren elektrikoa, baloia, banpiroen mozorroa... Aurten, ordea, gauzak desberdinak izango direla agindu diote.

8,35€



OLENTZERO-ENBORRA

Olentzero-enborra erro sakoneko ipuina da, herri literaturan ernatua, iturri zaharretatik edan eta hitz eta ilustrazio berrietan beste behin loratua.

11,50€



OLENTZERO PAMPINA

Euskal umeentzat hain ezaguna den pertsonaia pampina bihurtua.

Handia 10,00€

Txikia 5,00€



OLENTZERO ETA MARI DOMINGIRI ESKUTITZA

Eskutitza idazteko oinarria eta gutunazala.

1,50€



OLENTZERO POSTALAK

Olentzero eta Eguberrietako postalak. 6ko lotea.


2,50€



TXIKIA IZANIK...

Haur kantuen bilduma. Txiki txikitatik entzuten dituzten kantuak biltzen dira bertan, kantari desberdinek abestuak.

13,50€



HANDITZEN, HANDITZEN

Haurrentzako prestaturiko bilduma. Kantu ezagunak, kantagarriak gurasoekin batera abesteko.

13,50€



ASKO MAITE ZAITUT, NIK

Euskal kantu tradizionalak haurrentzat, euskal kantagintzaren transmisiorako oso egokia.

13,50€



BI BELARRI ENTZUTEKO...

Haurren abestiekin eta kantu tradizionalekin osaturiko bilduma. Umeek gure kantutegia ezagutzen joan daitezen ondo pasatzen duten bitartean.

13,50€



ANIMALIAK

Argazki-liburu polit honetan animaliak deskubrituko, haien izenak ikasiko ditu, zer nolako itxura duten ikusiko du.

4,00€



BASERRIA

Argazki-liburu polit honetan baserriko hainbat animalia eta barazki deskubrituko ditu, eta haien izenak ikasiko ditu, zer nolako itxura duten ikusiko dut.

4,00€



PINTTO ETA ZINEMA

Pinttori izugarri gustatzen zaio zinema. Egun batean, ametsetan, aktore bihurtuko da, eta cowboyaren, superheroiaren eta izarretako zaldunaren rola jokatuko ditu.

15,40€



PINTTO ETA MOZART

Pinttori asko gustatzen zaio Untxi adiskidearekin batera Mozarten musika jotzea, baina, batez ere, hiriko musikariei entzutea atsegín du.

15,40€



HONDARTZAN JOLASEAN

Azeria, sagua, mapatxea eta hontza hondartzan jolasean ari dira. Eguzkia goian dago, eta eguraldi epela eta goxoa egiten du. Kometa bat hegaldarazi nahi dute, baina ez dabil haizerik. Egingo al duzu putz, kometa hegan ibiltzeko?

14,95€



BASOAN JOLASEAN

Azeria, sagua, mapatxea eta hontza kanpoan jolasten ari dira. Udazkeneko egun ederra da. Lagunek sagar batzuk hartu nahi dituzte, baina sagarrak goregi daude. Lagunduko al diezu?

14,95€



ELURRETAN JOLASTEN

Azeria, sagua, mapatxea eta hontza elurretan jolasean ari dira. Elur-panpina bat egin nahi dute mendi baten gainean. Baina... elur-bola oso astuna da. Lagunduko al diezu elur-bola mendi gainera eramaten?


14,95€



BEGIRATU DEZAKET ZURE PIXONTZIAN?

Xagu ingurura begira dabil, jakingura handiz. Interesgarria iruditzen zaio dena, baita lagunen pixontziak ere. Laster sortuko zaie lagunei ere Xaguren pixontzian zer dagoen jakiteko gogo. Eta ezusteko handia hartuko dute.

14,00€



NIRE MUNDU TXIKIA

Zure begiek erakusten dizutena baino are zirrarragarriagoa da mundua. Guretzat ikusezinak diren arren, izaki bizidun ñimiñoak daude nonahi. Zure gorputzean milaka milioi bakterio bizi dira, eta funtsezkoak dira zure osasunerako.

17,30€



NORA DOAZ ANIMALIAK NEGUAN?

Nora doaz animaliak neguan? Zer jaten dute? Nola lortzen dute bero egotea? Gizakiok ba al dugu laguntzerik? Aurkitu erantzunak irudi ederrez beteriko liburu leihatiladun honetan.

14,70€



NOLA IZAN NAITEKE ATSEGINA BESTEekin?

Zer da besteekin atsegina izatea? Nola izan naiteke atsegina besteekin? Eta besteekin atsegina izatea benetan al da baliagarria gauzak aldatzeko? Aurkitu erantzunak irudi ederrez beteriko liburu leihatiladun honetan.

14,70€



ZERGATIK HILTZEN DIRA GAUZAK?

Zer gertatzen da norbait hiltzen denean? Egokia al da heriotzaz hitz egitea? Zer egin dezakegu triste egoteari uzteko? Aurkitu erantzunak irudi ederrez beteriko liburu leihatiladun honetan.

14,70€



AZERIKUME TXIKIA BASOAN JOLASEAN

Azerikume txikiak abentura pila bat biziko ditu basoan. Lo egiteko leku bat bilatuko du. Untxiari lagunduko dio basurdekume txikiarentzat urtebetetze-opari bat aurkitzen. Eta nola lagunduko dio katagorriari, putzu sakon baten erdian dagoen enborretik ateratzen?

14,65€



ANTXUME TXIKIA BASERRIAN JOLASEAN

Antxume txikiak abentura pila bat biziko ditu baserrian. Galdu egingo da, eta ahuntz amak aurkitu egin beharko du. Gero, beste abere batzuk iritsiko dira baserrira. Eta nola lagunduko diote antxume txikiak eta haren lagunek katakume txikiari zuhaitzetik jaisten?

14,65€



ESKOLAKO LEHEN EGUNA

Eskolako lehen egunari buruzko liburu dibertigarri bat; bai eskolara joateak beldur pixka bat ematen dieneztat eta bai eskolara joateko irrikaz daudenentzat ere.

15,50€



IGERIKETAKO LEHEN EGUNA

Igeltxo guztiak igeriketa-eskolara joatea nahi du amak. Gauza asko ikasiko dituzte: bizkar gainean flotatzen, bizkarrez igeri egiten, hankei eraginez uretan tente mantentzen eta abar.

15,50€



TRAKTORETXO BELDUR DA

Traktoretxo maldan behera joan da aitarekin, baina irrist egin eta lokatzetara erori da. Eta orain Traktoretxo beldur da, eta ez du aletegitik atera nahi, euria ari duen bitartean. Baina halako batean, Lilik Traktoretxoren laguntza behar du, berehala gainera...

14,95€



TRAKTORETXO NEGUAN

Negua da, eta Traktoretxori ez zaio negua gustatzen. Traktoretxoren lagun berria, antzara, herrialde beroago batera joan da hegan. Traktoretxori aspergarria egiten zaio baserri barruan egotea. Baina egin al daiteke gauza dibertigarrik neguan?

14,95€



TRAKTORETXO ETA BATELA

Haize batela zelai batean utzi dute, Traktoretxoren eta haren lagunen baserriaren ondoan. Nabigatzeko zaharregia da orain, ez omen du berriro itsasoa inoiz ikusiko... Traktoretxok, Lilik eta abereek Haizeri laguntzea erabaki dute, ordea.

14,95€



TRAKTORETXO ETA OREINKUMEA

Egun batean, Traktoretxok hanka bihurritua duen oreinkume bat aurkitzen du baso ondoan. Traktoretxo, beti bezala, laguntzeko prest dago, eta oreinkume zauritua zaintzen du, baserriko lagunekin batera. Oreinkumea sendatzen denean, ordea, agur esateko garaia iristen da...

14,95€



MUNSTROEK ERE GELA TXUKUNTZEN DUTE!

Munstroek ere gela txukundu behar dute! Ez didazu sinisten? Ireki liburu hau eta ikusiko duzu zer gertatzen zaion munstro zabar txiki bati... Ez dituzu zure jostailuak berriro botata utziko!


12,25€



MUNSTROEK ERE HORTZAK GARBITZEN DITUZTE!

Munstroek ere hortzak garbitzen dituzte! Ez didazu sinisten? Zabaldu liburu hau, eta ikusiko duzu zer gertatzen zaion hortzak garbitu nahi ez dituen haur bati. Hobe duzu kontuz ibili... munstro beldurgarriak aurki ditzakezu eta.

12,25€



EZETZ HARRAPATU

Harrapatuko al du kameleoiak marigoringoa? Eta matxinsaltoa? Eta beldarra?... Eta zuk, aurkituko al dituzu? Kartoizko liburu jostagarri honekin primeran pasako dute haurrek koloreak, zenbakiak eta animaliak deskubritzen dituzten bitartean.

15,65€



ESKULARRU GALDUA

Basoko animaliek egurgileak galdutako eskularrua aurkitu dute. Banan-banan, barruan sartuko dira, hotzetik babesteko. Baina orduan, egurgilea itzuliko da bere eskularrua hartzera eta...

11,15€



MAITATU ZURE BURUA!

Zure itxura zeure burua adierazteko moduaren parte da: zeure gogortza, zeure arauak! Baina itxura zure istorioaren parte baino ez da. Barnean nor zaren jakitea, hori da benetan garrantzitsua dena. Liburu honetako teknika eraginkorren bidez, haurrek munduan bere lekua aurkitzen ikasiko dute.

8,95€



AURKITU ZURE INDARRA!

Haurrak ahalduntzen baditugu beren buruko indarra aprobetxa dezaten, autoestimu ona izaten lagunduko diegu. Liburu honetako teknika eraginkorren bidez, haurrek enpatia garatzen eta beren barneko indarra aurkitzen ikasiko dute.

8,95€



EZAGUTU ZURE SENTIMENDUAK

Lagunak eta sentimenduak oso lotuta daude. Sentimenduak hobeto ezagutzen ikasi ahala, lagunetik harremanak ere sendoagoak dira. Eta norbere burua eta emozioak ulertzeko gai izateak, haurrak ahalduntzen ditu.

8,95€



GARATU ZURE KONFIANTZA

Konfiantza muskulu baten modukoa da. Zenbat eta gehiago landu orduan eta sendoagoa. Hala, guztion konfiantzari mesede egin diezairoke entrenamendu pixka batek, gihar hori garatu eta indartzeko.

8,95€



+7

IGARRI MIGARRI

Hiru jolas: hiru hizkuntzatan: ahoz azaldu, mimika egin, eta marraztu (60 karta, dadoa, eta harea-erlojuua).

21,00€



+7

BIHURRIKERIAK

Hiru jolas: Elkar ezagutzen dugu? Tabu, Max-Mix (mimika eta kantatu), 60 karta, 1-2-3 dadoa, eta harea-erlojuua.

18,00€



+7

ASMATU BAIETZ

50eko karta-sortan era askotako jarduerak daude; 10 kartako sortan zailtasunak daude, dagokion jarduera betetzeko unean bete behar den agindua. Harea-erlojuua.

21,00€



+6

LETRAK HITZ

Hiru jolas: hitza igarri, parez aurkitu, eta istoriotxoak asmatu (60 karta).

18,00€



ANIMALIEN LIBURU HANDIA

Liburu ikusgarri honen egileek animalien bizimoduak aztertu dituzte, mundua ikusteko dituzten erak, bost zentzumenetan eta beste hainbat ezaugarritan oinarrituta. Liburuak 50 animazio baino gehiago ditu gainera.

22,00€



URAREN LIBURU HANDIA

Liburu honetan, hamaika jarduera eta kontu dibertigarri daude, gure planetako gauza miragarrietan barrena bidaia bat egiten duzun bitartean egin eta ikasteko.

Uraren ezaugarri guztiak erakusten dituzte, iturriaren muturretik harago zer dagoen ikusten laguntzeko!

24,00€



ZAINDU DEZAGUN GURE PLANETA

Lurra da gure planeta bakarra, baina orain arte ez dugu oso ondo zaindu. Ireki liburua, altxatu leihatilak eta ikusi zer ez doan ondo eta nola konpon ditzakegun gauzak: murriztu eta berrerabili, zaindu erleak, bildu zaborra, erosi tokikoa...

13,15€



+6

UZTA BATZERA

Jolas kooperatiboa. Lortuko al dute baserritarrek uzta batzea, auzolanean eta basurdeak harrapatu baino lehen? Jolasteko arau zehatzak eta ortuarien egutegia aparteko orri batean.


20,00€



KATTA ZINERA

Katta eta lagunak zinera joan ziren andereñoarekin, dinosauroen bizitza ezagutzeko. Baina bazen dinosauro bat... A zer-nolako larrian jarri zituen!

8,65€



KATTA TXANGOIA

Udaberriko egun euritsu batean, Kattak eta Sarek ostadarra topatu dute. Zer ote dago beste muturrean? Urrez beteriko lapikoa? Ala beste zerbait, agian?

8,65€



KATTA BAINUA

Kattak bainu demasa hartu du itsaspean. Onik itzuliko ote da olagarro, sirena, pirata eta marmoken artetik? Sare dauka alboan, eta eskerrak!

8,65€



KATTA MISIOA

Elur-giroa zegoen bi antzara haiek basora heldu zirenean. Kattak eta lagunek ez zekiten laster misio bat bete beharko zutenik: bi pakete eramatea izan baten atzetik azpiraino...

8,65€



ENIGMAK. ARTEA

Izan nahi al duzu Artearen Historian espezializatutako detektibea? Liburu honetan 25 enigma dituzu zain, primeran pasatzeko garunak apurtu eta arte-sorkuntzaren munduan murgildu ahala.

19,90€



ENIGMAK. BELDURRA

Ongi etorri beldurrezko enigmen libururara. Bizi zure haragian Zonbien anabasa. Sentitu gaueko Mamuak. Ezinezkoa da istorio hauetatik ihes egitea: lehenago, istorio bakoitzean gordetako enigma argitu beharko duzu. Gozatu beldurrik gabe!

19,90€



IZARRAK ETA PLANETAK

Nola jaiotzen dira izarrak? Zer eguraldi egingo ote du Jupiter planeta erraldoian? Liburu honi esker, Lurrari buruzko informazioa jaso, eta eguzkiari, izarrei eta Ilargiari buruz ere, gehiago ikasiko duzu.

21,00€



ESPAZIO-ONTZIA

Sidek bere bizitza aldatuko duen aurkikuntza bat egingo du. Espazioan barrena bidaiatuko du espazio-ontzi batean, gizadiarentzat bizileku berri bat aurkitzeko asmoz. Lortuko al du misio zail hori betetzea?

18,85€



MOZORRO ETA KOLORE FESTA

Noa eta Lea ahizpek, beren lagunekin batera, auzoko inauterietako giroa ezagutuko dute. Nahiko lan izango dute mozorroak aukeratzeko. Bigarren istorioan, berriz, auzoko kaleak marraztuko dituzte.


9,30€



IKIMILIKILIKLIK!

Bi istorio jasotzen ditu, magia eta oporrak: Magia egiten: magiak liluratuta hasiko dira bi ahizpak jolasean; lagun guztiek, halere, ez dute magia gogoko izango. Eta Irristada oporretan: Kobazulo baten barrura sartuko dira guztiak, aita izan ezik.

9,30€



BULLYING-AREN AURKAKO TALDEA

Daveren taldearengandik bullyinga jasaten hasitakoan, Jake, Ravi eta Tobyk talde bat sortuko dute: BAT, Bullyingaren Aurkako Taldea. Ruthek taldean sartzeko gonbita jasoko du, baina ez du nahi izango taldeko partaidea izan... bullyinga jasan arte.


13,30€



ZIBERBULLYING-AREN AURKA

Udako oporraldi luzearen ostean, eskolak diru arazoak medio, ez ditu ikasturte berrirako atea irekiko. BAT taldekoek, hasieran, telefonoei esker eutsiko diote elkarren arteko harremanari. Gero, ordea, mezu beldurgarriak iritsiko dira.


13,30€



BAT PARTIDA HANDIA

Kirolean, kontua ez da irabaztea edo galtzea, nola jokatzen duzun baizik. Baina, irabaztea ederra da. Futboleko jokatzea, esate baterako, dibertigarria izan daiteke, baina taldekideren batek partida bullyinga egiteko baliatzen badu, zer egin? BAT kideak batuko ote dira partida handia irabazteko?.

13,30€



ZTIM JARDUERAK

ZTIM (STEM) arloko gaiei buruzko jakin-mina sortuko die haurrei. Ikasle txikiak hainbat gauza ikasiko dituzte beren inguruko munduari buruz, eta agian, egunen batean beren kabuz asmakizunen bat egiteko inspirazioa ere emango die.

16,00€



ZATIKIAK ETA ZENBAKI DEZIMALDUNAK

Ireki leihatilak eta ezagutu zatikiak, dezimaldunak eta ehunekoak: zer diren eta nola erabili.

14,45€



NOLAKOA DA ZURE GARUNA?

Zure garuna miresgarria da eta hamaika funtzio betetzen ditu, horietako asko aldi berean. Ireki liburu eder hau garunaren barrena bidaia bat egiteko.

15,25€



ABENTURA BAT GREZIAN

Historianautak denboran atzera joan dira Antzinako Greziara, eta zure laguntza behar dute iraganeko sekretuen berri jakiteko. Akropolira joango dira, Olinpiar Jokoen aitzindari diren kirolak ikusiko dituzte eta maskarak margotuko dituzte, anfiteatroan egitekoa den tragedia greko zirragarri baterako.

10,70€



ABENTURA BAT BIKINGOEN HERRIALDEAN

Historianautak denboran atzera joan dira Bikingoen Arora, eta zure laguntza behar dute iraganeko sekretuen berri jakiteko. Janaria bilatuko dute, errunak deszifratuko dituzte, hilobi-itsasontzi ederren berri ikasiko dute eta bikingoen arpilatze baten nondik norakoak ezagutuko dituzte.


10,70€



EVEREST

Munduan bada hazten ari den mendi bat. Lurreko tokirik altuena da, alpinista abenturazaleen erronka gorena, *Sagarmatha* zeruko jainkosaren irudi izugarri garaia... Ongi etorri Everest-era!


16,70€



AMAZONAS

Ongi etorri Amazonasera! Liburu lilugarri honi esker, munduko ibairik handienaren garrantziaz ohartuko gara; izaki bizidun guztiak ari fin baina estu batez lotuta gaude, eta horrek planeta osoko bizitzari eragiten dio. Amazonas babestea planetaren biziraupenerako ezinbestekoa da.

16,70€



**100 KONTU ONDO
EZAGUTZEKO MUSIKA**

Musikaren unibertso liluragarria hobeto ezagutzeko tresna bikaina etxeko gaztetxoek zuzenduta. Eta zergatik ez, musikaren inguruko jakin-mina asetu nahi duten helduentzat ere.

15,40€



**100 KONTU ONDO
EZAGUTZEKO ZIENTZIA**

Zientzia mundua aztertzeko modua da, nola funtzionatzen duen jakiteko. Liburu interesgarri honi esker, gaztetxoek zientziaren mundu liluragarrian murgiltzeko aukera izango dute.

15,40€



**100 KONTU ONDO
EZAGUTZEKO JANARIA**

Janariaren gaia hobeto ulertzeko tresna bikaina etxeko gaztetxoek zuzenduta. Eta zergatik ez, janariaren inguruko jakin-mina asetu nahi duten helduentzat ere bai.

15,40€



**100 KONTU ONDO
EZAGUTZEKO GIZA GORPUTZA**

Giza gorputzaren funtzionamendua hobeto ulertzeko tresna bikaina etxeko gaztetxoek zuzenduta. Eta zergatik ez, giza gorputzaren inguruko jakin-mina asetu nahi duten helduentzat ere bai.

15,40€



EGUZKIA GOSALDU DUT

Inoiz pentsatu duzu nondik datozen gosaritan jaten ditugun zerealak? Ba al zenekien zure zapaten zolako goma zuhaitz batetik ateratzen dela? Ilustrazio ederrez jantzitako naturako gertaeren bilduma honetan, gure bizitzan nonahi presente dauden landareak goretshi nahi dira.


17,55€



ERLEAK ETA LUR-ZIZAREAK

Erleak eta lur-zizareak nahitaezkoak dira izadiarentzat, bioaniztasunarentzat eta gizateriarentzat. Ezagutu, hobeto babesteko. Gure etorkizuna dira. Irakurlea erleen etxera eta lur-zizareen tuneletara sartuko da ilustrazio bikainei esker, izadiko heroi horien bizimodua hurbilgotik ikusteko.

16,80€



NI, PERTSONA Ikus-filosofia haurrentzat (Ireki- Begiratu-Pentsatu)

Pentsamendu kritiko eta independentea modu jostagarri eta erakargarrian sustatzeko liburu jokoa. 14 kartulina eta 100 galderatik gora gaiak hausnarketa aberatsa pizteko, bakarka zein taldean.

18,50€



MUNDU KRUDELA Ikus-filosofia haurrentzat (Ireki- Begiratu-Pentsatu)

Pentsamendu kritiko eta independentea modu jostagarri eta erakargarrian sustatzeko liburu jokoa. 14 kartulina eta 100 galderatik gora gaiak hausnarketa aberatsa pizteko, bakarka zein taldean.

18,50€



EINSTEIN

Albert Einsteinen teoriak garaiko zientzialariak liluratu zituen, eta denen ahotan jarri zuen fisika. Haren pentsamenduari esker, jauzi handi bat egin zuen zientziak: jauzi kuantikoa.

13,15€



MARIE CURIE

Bi nobel sari irabazi zituen emakume zientzialari bakarraren bititza zirrargarria. Berak beti ulertu zuen zientzia mundua ezagutzeko eta gizadiari laguntzeko tresna gisa.

13,15€



NEWTON

Fisika berri bati atea ireki zioten bere teoriak, lege unibertsal bakar baten bidez azalduz planeten mugimendua ez ezik objektu guztiena ere.

13,15€



GALILEO

Egin zituen aurkikuntzekin, zalantzan jarri zuen bere garaiko zientziaren mundua. Izan ere, mundua aldatuko zuen mezu bat ekarri zuen.

13,15€



HIPATIA

Hipatia matematikari aparta eta filosofo grinatsua izan zen, eta bere lanei esker matematika eta astronomia eguneratu eta berrikusi ziren.

13,15€



ADA LOVELACE

Bere matematika ezagutzei eta adimen sortzaileari esker algoritmo bat idatzi zuen, askorentzat historiako lehen programa informatikoa izan zena.

13,15€



MARY ANNING

Mary Anning-ek aitari laguntzen zion fosilak jasotzen. Orduantxe hasiberria zen Paleontologia diziplinarako ezinbestekoak izan ziren aurkikuntza ugari egin zituen ogibide bihurtutako pasio hari jarraituz.

13,15€



ARISTOTELES

Gaztetatik jakintzaren alderdi guztiak ezagutu nahi zituen, giza-jokabidea, politika eta etika, zein naturan ikusten zuen guztia.

13,15€



DARWIN

Komiki honetan ikusiko duzu naturalista bat nola jaiotzen den. Natura behatzeko eta ezagutzeko zuen pasioak munduan zehar ibiltzera bultzatu zuen. Eta, gainera, teoria baten bilakaera ezagutuko duzu.

13,15€


XABIROI KOMIKIAK



HAUR BESOETAKOA. ITSASOAN URAK HANDI

Aimek Haurren Hiria hankapean hartu eta ihes egin behar izan dute, HB eta Lo-Li-tak. Itsasora egin dute jauzi haragoko ertzen batean askatasuna eta bizimodu hobea aurkitu dituztelakoan.

15,00€



HAUR BESOETAKOA PARISTIK DATORREN ARTISTA

Ihes egitea zaila bada, are zailagoa itzultzea. Horretan dabil HB. Baina oraingo honetan Beste Aldetiko dator mehatxua: AIMAK saldoka datoz ihesi haurren mundura.

14,00€



SASI ARTEAN ELGETA

Elgetaren bizitza, musika musikoen aurka, Elgetaren bizitza, 1931-36ko errepublika, Elgetaren bizitza, maitasun fantastikoa, Elgetaren bizitza, gerra eta kartzela, Elgetaren bizitza, 27 urteko diktadura, Elgetaren bizitza, bakardadea nahiago...


15,00€



HAUR BESOETAKOA LITXARRERIEN JAUNA

Gurearen oihartzunak dituen haurren unibertso batean, Haur Besoetakoak litxarrerien mafiaren erabateko kontrola dauka, edo hala uste du berak behintzat...

13,00€



ARRANOTXU

Ados, superheroiangana joko luke jenderik gehienak arazo korapilatsurik balu, baina noren atea jotzen dute gero superheroi horiek, kozinatzen hasi, eta gatzik gabe geratu direla konturatzean?

15,00€



BASOLATIK BERRIONIK EZ

Ez berri gehiagorik ekarri, mezulari, jakin behar baitut neure begieiz. Basolan zer berri den...

15,00€



SANTA FAMILIA

Familia da emanda datorren gauza bakarra. Ez lagunak, ez bizimodua, ez ingurua, familia baizik. Norak, ordea, arau horri ihes egingo dio. Sekretu bat gordetzen du. Bere sekretua.

14,00€



AMETS ALOKATUAK

"Etokizun hurbil batean, jendeak bere gau horretako ametsak alokatuko ditu, orain hoteleko gela bat hartzen duenak bezala..."

15,00€



KORTSARIOEN OSTATUA

Maiz gertatu bezala, kortsario izatea ez da lehen aukera, bakarra baizik.

13,00€




MUSEO BILDUMA

Museoak leku guztietan ugaldu diren sasoian, hauen gaineko begirada kritikoa da Museo Bilduma, eta, oroz gain, sormenari eskainitako gorazarrea, zientzia fikzioaren klasikoei egindako keinu ttipiz bete.

13,00€

XABIROI KOMIKIAK



IRATI

Mitologia eta abentura uztartzen dituen istorio zirraragarria.

12,00€



PIZTIA OTZANAK

Genero beltzekoa, intriga eta misterioa ziurtatuta daude.

12,00€



TELEATOI KALABAZA HALUZINOGENOAK

Zientzia-fikziozko abentura, umore galaktikoarekin.


12,00€



AZKEN GARAIPENA

Naziek gerra irabazi ondorengo etorkizun batean, hilketa arraro bat ikertzen dute bi poliziek. Fikzioa eta intriga.

12,00€



ANUBIS 3.0

Egiptoko mitologiaren berrirakurketa futurista, intrigaz betetako istorio batean.

12,00€



ZEBRA EFEKTUA

Bi hiltzaile enkargu bat burutzear dira New Orleans-en, baina bezperan metamorfosi arraro bat gertatuko da. Intriga eta fantasia.

12,00€



Eskaera egiteko
943 210 965
elkar@elkar.eus